



## DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2022

### IVAP

1. Hirigintzari buruzko ikastaroko ikasleentzako laguntzak, erakunde publikoetan eta/edo enpresetan praktikak egiteko .....2
2. 2022-2023ko aldirako Herri-Administrazioarekin, Zuzenbide Publikoarekin edo Administrazio Zientziarekin zerikusia duten gaiei buruzko ikerketa sustatzeko diru-laguntza deialdia .....4
3. «Jesús María Leizaola» 2022ko saria .....5
4. Hizkuntza-prestakuntzako ikastaroak egiten ari diren langileak ordezkatzeko dirulaguntzak (toki administrazioa) .....7
5. Euskal administrazio publikoetako enplegatuen prestakuntza finantzatzeko laguntzak .....8



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Hirigintzari buruzko ikastaroko ikasleentzako laguntzak, erakunde publikoetan eta/edo enpresetan praktikak egiteko**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2022ko maiatzaren 31koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, zeinaren bidez erakunde edo enpresetako diruz lagundutako praktikak erregulatzen baitira eta haietan parte hartzeko deia egiten baitzaie Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak antolatutako «Hirigintza eta Lurralde Ikasketak XLVII. (47) Ikastaroa (2021-2022)» egiten duten ikasleei.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

## Deialdia.

EBAZPENA, 2022ko maiatzaren 31koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, zeinaren bidez erakunde edo enpresetako diruz lagundutako praktikak erregulatzen baitira eta haietan parte hartzeko deia egiten baitzaie Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak antolatutako «Hirigintza eta Lurralde Ikasketak XLVII. (47) Ikastaroa (2021-2022)» egiten duten ikasleei. EHAako ekainaren 8a. 110 zbkia

## Esleipena

EBAZPENA, 2022ko uztailaren 20koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak (LHIEE) antolatutako XLVII. (47) Hirigintza Ikastaroan aurreikusten den «erakunde edo enpresetan egitekoak diren diruz lagundutako praktikaldia» ikasleei esleitzen diena. EHAako abuztuaren 4a. 150 zbkia

EBAZPENA, 2022ko irailaren 19koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, zeinaren bidez ebazpen honen huts-zuzenketa egiten baita: Ebazpena, 2022ko uztailaren 20koa, Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak (LHIEE) antolatutako XLVII. (47) Hirigintza Ikastaroan aurreikusten den «erakunde edo enpresetan egitekoak diren diruz lagundutako praktikaldia» ikasleei esleitzen diena. EHAako irailaren 26a. 184 zbkia



#### 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Lurralde eta Hiri Ikasketarako Euskal Eskolak, 1992az geroztik, urtero eskaintzen du Hirigintzari buruzko modulu bidezko ikastaroa, eta 2021-2022 ikasturtean erakundeetan eta/edo enpresetan 300 ordu inguruko praktika-aldia antolatu zuen hirigintza-arloan 48 hilabeteko eskarmentua baino gutxiago zutenentzat. Guztira, 22.000 euroko aurrekontu-zuzkidura erabili da (Gizarte Segurantzako gastuak barne). Laguntza bakoitza ez da sekula 2.222,22 eurotik gorakoa izango.

Praktika-aldiaren helburu nagusia: Hirigintzari buruzko ikastaroa (2020-2021) egin duten ikasleek hirigintzaz ikasitakoa erakunde publikoetan eta/edo enpresetan aplikatzea, han hiru hilabeteko praktikak eginez.

#### 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Hala, harreman estuagoa lortzen da hirigintza- lurralde- eta ingurumen-arloetan langile espezializatuen beharra izan dezaketen zentro eta profesionalekin, baita erakunde publiko eta pribatuekin ere.

Ikasleek jarduera erdi-profesionala garatzen dute, eta aukera izaten dute erakunde publikoetan "in situ" ezagutzeko zertan den eta zelan kudeatzen den hirigintza. Horretarako, aholkularitza-lanetan ibiltzen dira eta proiektu profesional batean parte hartzen dute hiru bat hilabetez (2022ko urritik abendura arte). Horrek guztiak ondorio garrantzitsuak dauzka Lurralde eta Hiri Ikasketarako Euskal Eskolaren hirigintzari buruzko modulu bidezko ikastaroko ikasleentzat, praktika-aldia egin aurretik ez baitute eskarmenturik hirigintza-kontuetan.

Diruz lagundutako praktikak 2 ikaslek eta 1 ikaslek egin dituzte, guztiak Bizkaikoak.

Emaitzak onak izan dira, ikasleek eta udalek egindako balorazioen arabera.

Gauzatutako aurrekontua:

Aurreikusitakoa	Gauzatutakoa	%	laguntzak
22.000	7.268,58€	33	3

#### 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Diru-laguntza praktiketarako	9	3



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**2022-2023ko aldirako Herri-Administrazioarekin, Zuzenbide Publikoarekin edo Administrazio Zientziarekin zerikusia duten gaiei buruzko ikerketa sustatzeko diru-laguntza deialdia**

2.- Araua

EBAZPENA, 2022ko ekainaren 15ekoa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, zeinaren bidez bi dirulaguntza emateko deialdia egiten baita, 2022-2023ko aldirian, administrazio publikoaren, zuzenbide publikoaren edo administrazio-zientziaren inguruko azterketak eta ikerketak egiteko.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

Deialdia

Esleipenik ez

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza honen helburua da, Herri-Administrazioarekin, Zuzenbide Publikoarekin edo Administrazio Zientziarekin zerikusia duten gaiei buruzko ikerlanak egitea eta ikerlan horiek adiera ematea, administrazioak eta gizarteak bere ekarpenak jasotzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

2022ko deialdian, ikerketa-proiektu bakarra aurkeztu da, eta ez da laguntzaren esleipenduna izan.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Ez da bete aurreikusitako helburua, ez baita inolako laguntzarik eman.



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**«Jesús María Leizaola» 2022ko saria**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2022ko apirilaren 27koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen zuzendariarena, zeinaren bidez iragartzen baita «Jesús María Leizaola» 2022ko saria, euskal autonomia eta/edo XXI. mendeko politika publikoen garapenean eragina duten erronkei aurre egiteko gobernantza publikoa xede duten ikerlanetarako.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHA Ari Hiperesteka)

Deialdia

Ez esleitzeko Ebazpena

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

2022ko «Jesús María Leizaola» sariaren helburua da euskal autonomiari, euskal autogobernuari, EAEko lurralde-antolamenduari eta/edo politika publikoen garapenean eragina duten beste erronka batzuen gobernantza publikoari buruz egindako ikerlanak sustatzea eta zabaltzea.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Sariak:

- Ikerketa sustatzen du hainbat azterketa-ikuspegietatik: euskal autonomia, euskal autogobernuari, EAEko lurralde-antolamendua eta/edo XXI. mendeko politika publikoen garapenean eragina duten beste erronka batzuen gobernantza publikoa.
- Arlo horietan egindako ikerlanen zabalkundea bultzatzen du.

Leizaola 2022 Sariaren edizioa ez da bereziki arrakastatsua izan, lau monografia aurkeztu baitira, eta horietatik hiru ez dira onartu, deialdiko baldintzaren bat ez betetzeagatik. Era berean, onartutako monografia bakarrak ez du izan ez saria ez akzesita merezi izateko deialdian eskatzen den kalitate bikaina.



## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Leizaola saria deialdira aurkeztutako hautagaien kopurua	3	4
Leizaola saria ematea	1	0
Leizaola saria akzesita ematea	1	0
EAEtik eta Nafarroatik kanpo bizi diren Leizaola sariaren hautagaiak	-	1
Leizaola deialdian aurkeztutako lanak, saririk gabekoak baina argitaratuak	1	0
Leizaola saria deialdian ezarritakoarekin bat datozen aurkezturiko lanak	100%	25%



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Hizkuntza-prestakuntzako ikastaroak egiten ari diren langileak ordezkatzeko dirulaguntzak (toki administrazioa)**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2005eko azaroaren 30ekoa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena. Agindu honen bidez, batetik, arautzen da Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (HAEE) Euskal Autonomia Erkidegoko herri-erakundeei eskainiko dien hizkuntza-prestakuntzako zerbitzua, eta bestetik, ezartzen dira euskara-ikastaroetara doazen udal-langileak ordezkatzeko dirulaguntzen arauak.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

Programaren araua eta deialdia

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2005006237>

Hutsik uzteko ebazpena:

[bopv/eu/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?R01HPortal=y22&R01HPPage=bopv&R01HLang=eu&ed2022005270&BOPV\\_HIDE\\_CALENDAR=true](https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?R01HPortal=y22&R01HPPage=bopv&R01HLang=eu&ed2022005270&BOPV_HIDE_CALENDAR=true)

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Udal-administrazioak diruz laguntzea, derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetan egonda eta partzialki edo guztiz liberatuta egonda, euren lanpostuei dagokien hizkuntza-eskakizuna eskuratu arte euskara-ikastaroetara joaten diren langileak ordezkatzeko kostua finantzatzuz.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

2022ko epealdian ez zen dirulaguntza eskaerarik izan, eta, beraz, ez zen emate-ebazpenik eman.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Ordezkapenatarako diru-laguntza eskatu duten erakundeen kopurua	10	0



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Euskal administrazio publikoetako enplegatuen prestakuntza finantzatzeko laguntzak**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2022ko ekainaren 1ekoa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-administrazio eta foru-administrazioen enplegatuen prestakuntza finantzatzera bideratutako laguntzen deialdia egiten duena.

74/2022 EBAZPENA, abuztuaren 24koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez xedatzen baita zuzenbide pribatuko erakunde publikoak den Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen artean prestakuntza arloan sinatutako lankidetzaren hitzarmena argitaratzea.

76/2022 EBAZPENA, abuztuaren 24koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez xedatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren –Hezkuntza Sailaren bitartez - eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen artean prestakuntza arloan sinatutako lankidetzaren hitzarmena argitaratzea.

75/2022 EBAZPENA, abuztuaren 24koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez xedatzen baita Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen artean prestakuntza arloan sinatutako lankidetzaren hitzarmena argitaratzea.

77/2022 EBAZPENA, abuztuaren 25ekoa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez xedatzen baita Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen arteko prestakuntza arloko lankidetzaren hitzarmena argitaratzea.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/06/2202648e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza Programa honen helburua da ahal den erakunde publiko guztietan prestakuntza-plan edo -programen ezarpena sustatzea eta finkatzea. Bestalde, aurkeztutako prestakuntza-plan edo -programek analisi edo diagnostiko batean oinarritu beharko dira.

Alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan lan egiten duten langileen prestakuntza etengabeko garapenean eta egokitzapenean dauden kalitatezko zerbitzu publiko batzuk eskaintzeko ezinbesteko elementutzat hartzeak, eta, bestetik, EAEko administrazio guztiek aurrean





dituzten aurrekontu-zailtasunak aintzat hartzeak, horiexek bultzatzen gaituzte Diru-laguntza Programa hau abian jartzera.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

1. adierazlea: 31 (45 aurreikusitakoak)
2. adierazlea: 79.500 (70.000 aurreikusitakoak)
3. adierazlea: 96 (175 aurreikusitakoak)

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Prestakuntza-planen kopurua	45	31
Parte-hartzaileen kopurua	70.000	79.500
Programan parte hartzen duten erakundeen kopurua	175	96